

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARALDEKO KUADRILLA

#### **2026ko Aiaraldeko Kuadrillako emakumezkoen kirol-taldeak eta kirolariak babesteko dirulaguntzen oinarrien eta deialdiaren onarpena**

Aiaraldeko Kuadrillak 2026ko martxoaren 23ko 31/2026 Lehendakaritza Dekretuaren bidez onartu zituen Aiaraldeko Kuadrillako emakumezkoen kirol-taldeak eta emakume kirolariak babesteko 2026ko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia.

Horiek I. eranskin gisa argitaratuko dira.

Arespalditzan, 2026ko martxoaren 25ean

*Presidentea*

*IÑIGO PINEDO VADILLO*

## I. ERANSKINA

### 1. artikulua. Objektua, xedea eta prozedura.

Deialdi honen xedea da 2026an emakumeen kategoriako banakako eta/edo taldeko kirol lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten subjektuak babestera bideratutako dirulaguntzak ematea, norgehiagoka bidez, baldin eta egoitza fiskala eta/edo soziala Aiaraldeko Kuadrillan badute (Laudio, Amurrio, Aiara, Okondo eta Artziniega).

Deialdi honen helburua emakumeen kirolaren garapenean emakumeen parte-hartzea babestea, ikusaraztea eta sustatzea da.

Arabako Lurralde Historikoan genero arrakala esanguratsua dago kirol federatuan: 2023an emakumeen lizentziak lizentzia guztien ehuneko 27,13 baino ez ziren. Gainera, diziplina desberdinen artean emakumeek duten banaketak ere generoaren arabera bereizketa argia erakusten du; izan ere, federatutako pertsonen % 50 baino gehiago emakumeak diren kirolak “femeninoagotzat” jotzen dira, edo hala hartzen diren diziplinak dituztenak dira (gimnasia, hipika, boleibola eta neguko kirolak).

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.6 artikulua jasotzen duen bezala, “(...) botere publikoek neurri espezifikokoak eta aldi baterakoak hartu behar dituzte bizitzaren esparru guztietan sexuagatik dauden egiteko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko”. Zehazki, 28.1 artikulua arabera, “Euskal administrazio publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren praktiketan eta jardueretan kirol-modalitate guztiak, aisialdikoak zein lehiaketakoak, praktikatzeari dagokionez”. Era berean, lehen aipatutako artikulua bosgarren paragrafoarekin bat etorritik (28.5. art.): “Euskal administrazio publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren praktiketan eta jardueretan kirol-modalitate guztiak, aisialdikoak zein lehiaketakoak, praktikatzeari dagokionez”.

Era berean, Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 2. artikulua egungo idazketak honako hau ezartzen du: “Euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikorako eta kirolerako eskubidearen eraginkortasunera bideratutako politika bat hartuko dute, printzipio gidari hauen arabera: (...) h) emakumeak kirol praktikan maila guztietan eta diskriminaziorik gabe erabat integratzea erraztuko duten baldintzak sustatzea”.

Beraz, beharrezkoa da eskubide hori gauzatzean berdintasuna lortzen lagunduko duten ekintza positiboak bultzatzea, kirolaren esparruan egun dagoen genero-arrakalak irauten duen bitartean. Hala, beharrezkoa da pertsona fisikoak edo erakunde onuradunak bete

beharreko ezaugarriak definitzeko baldintzak eta irizpideak ezartzea, bai eta diru-laguntza oriek eskatu, izapidetu eta emateko arauak ere.

## 2. artikulua. Aurrekontu-egozpena.

Emandako diru-laguntzen guztizko zenbaketa Aiaraldeko Kuadrillako aurrekontuetan adierazitakoa izango da.

Gastua Aiaraldeko Kuadrillaren 2026ko aurrekontuko 230 481011 partidaren kargura egotziko da.

Partida horren gehieneko kreditua eta, beraz, gehieneko aurrekontu zuzkidura, dirulaguntzen deialdi honetarako, 4.000,00 eurokoa da, 2026an edozein kategoriatan egiten diren probintzia-, estatu- eta nazioarte-mailako kirol lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten emakumezko taldeak edo emakumezko kirolariak babesteko.

## 3. artikulua. Erakunde onuradun izateko baldintzak

1. Deialdi honetan arautzen diren babesletza-dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte 2026an egiten diren probintzia-, estatu- eta nazioarte-mailako emakumezkoen kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek, banakako edo/eta taldeko kirol-diziplinetan. Kirol-lehiaketa ofizialak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko federazioek antolatutakoak, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak edo Espainiako Gobernuako Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioko Kirol Kontseilu Gorenak aitortutako federazio nazionalak onartutakoak.

Alde batetik, babesletzaren onuradun izan daitezke berezko nortasun juridikoa duten kirol-klubak, kirol-elkarteak, kirol-elkarketak edo kirol-erakundeak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Kirol diziplinen lehiaketa ofizialetan parte hartzen duen emakumezko talde bat, gutxienez, inskribatuta eta jardunean izatea, lehiaketa horiek indibidualak edo kolektiboak izan.
- Helbide fiskala eta soziala Aiaraldeko Kuadrilla osatzen duten bost udalerrietako batean izatea: Amurrión, Laudion, Aiaran, Artziniegan edo Okondon.
- Legez eratuta eta dagokien kirol-erregistroan inskribatuta egotea (Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroa, Kirol Kontseilu Gorenaren Kirol Erakundearen Erregistroa).
- Erakunde onuradunaren Zuzendaritza Batzordeak gutxienez % 33 emakumeak izan behar du, hiru pertsonak osatzen dutenean, eta % 40 emakumeak, bost pertsona baino gehiagok osatzen dutenean.

Bestalde, pertsona fisikoei dagokienez, onuradun izan ahalko dira banakako kirol-diziplinen lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten emakume kirolariak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Aiaraldeko Kuadrilla osatzen duten udalerrietako batean erroldatuta egotea: Amurrio, Laudio, Aiara, Artziniega edo Okondo.
- Lehiatzen diren kirol-diziplinan behar bezala federatuta egotea.

2. Ezin izango dute dirulaguntza lortu Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsona juridiko eta fisikoek.

Aipatutako lege-testuaren 13.1 h) artikulua arabera, Estatuko araudiaren arabera indarrean dagoen berdintasun-plana izan behar duten enpresek ere ezin izango dute laguntzarik edo diru-laguntzarik jaso, ezta Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako baldintzetan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresek ere.

Era berean, ez zaizkio dirulaguntzak emango, ez zuzenean ez zeharka, LGTBIfobia egiten, bultzatzen edo sustatzen duen pertsona fisiko edo juridiko publiko, pribatu edo finantzaketa mistokoei, bihurketa terapiak sustatzea edo egitea barne, otsailaren 28ko 4/2023 Legeak, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko denak, 82. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

Babesletzaren erakunde/pertsona onuradunaren betebeharrak honako hauek dira:

- a) Publizitate euskarriak eta ekintzak: Erakunde edo pertsona onuradunak Aiaraldeko Kuadrillako logotipo korporatiboak sartu beharko ditu 2026ko ekitaldia amaitu arte parte hartzen duen lehiaketa ofizial guztietan erabiltzen dituen kirolariaren edo babestutako taldearen kirol ekipamendu guztietan. Era berean, erakunde edo pertsona onuradunak antolatzen dituen diruz lagundutako jarduera guztiek Aiaraldeko Kuadrillaren logoa jaso beharko dute karteletan, modu ikusgarrian, eta euskara eta berdintasun irizpideak jarraitu beharko dituzte, hizkuntza eta irudi inklusiboak erabiliz. Era berean, "Babeslea: Aiaraldeko Kuadrilla"/Patrocina: Cuadrilla de Aiaraldea testua sartu beharko dute, koadrilaren logoarekin edo armarriarekin, kartel, argazki edo bestelako komunikazio grafiko orotan, bai eta web eta sare sozialetan zabaltzeko publizitate-euskarrietan, prentsa-ekitaldietan, argazkietan eta abarretan ere.
- b) Justifikazioa: erakunde onuradunak Aiaraldeko Koadrilaren aurrean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak betetzen dituela, bai eta diru-laguntza

emateko edo baliatzeko betebeharrak eta helburuak betetzen dituela ere, oinarri hauen 17. artikuluan zehazten den bezala.

- c) Beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk: Erakunde onuradunak Aiaraldeko Kuadrillari jakinarazi beharko dio beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso duen diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin behar da, eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik.
- d) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako izapideak eta araudia: erakunde onuradunak jarduera garatzeko legez eskatzen diren izapide guztiak egin beharko ditu, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako araudia ere.
- e) Itzulketa: Itzultzeko arrazoren bat abian badago, jasotako zenbatekoa itzuli beharko da.

#### 5. artikulua. Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

- 1. Diruz lagundu ahal izango dira 2026ko ekitaldian sortutako gastuak.
- 2. Honako hauek dira diruz lagun daitezkeen gastuak:
  - a) Taldeko kideek edo kirolariak lehiatuko eta entrenatuko dituzten kirol-jantziak (lehen eta bigarren janzkerak).
  - b) Entrenamendurako eta lehiaketan parte hartzeko kirol-materiala.
  - c) Arbitrajeak eta epaileak dagokion kirol-denboraldian.
  - d) Kirolariak edo kirolari taldeak parte hartzen duen lehiaketatik eratorritako garraioekin egindako joan-etorriak, bai eta Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan ezarritakoak ere, hau da, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta dagokion denboraldian egiten direnak. Joan-etorrien gastuak dagokion fakturaren bidez justifikatu beharko dira.
  - e) Diruz lagundutako jarduerari lotutako publizitate-, hedapen- eta ikuspen-ekintzetatik, komunikabideetako kanpainetatik eta sare sozialetatik eratorritako gastuak.
- 3. Erakunde onuradunak benetan egindako eta behar bezala justifikatutako gastu subentzagarrien % 75eraino estaliko du diru-laguntzak, eta erakunde onuradunari dagokio gainerako ehuneko bere gain hartzea, funts propioekin edo beste finantzaketa-iturri batzuekin.

#### 6. artikulua. Eskabideak eta dokumentazioa.

- 1. Eskabideak eskabide normalizatuan edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako moduan aurkeztuko dira.

Eskaerak Aiaraldeko Kuadrillaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko dira. Eranskin eta dokumentazio guztiak kuadrillaren webgunean egongo dira eskuragarri: [www.cuadrilladeayala.eus](http://www.cuadrilladeayala.eus) edota [www.aiarakokuadrilla.eus](http://www.aiarakokuadrilla.eus)  
Agindu honen babesean diru-laguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Eskabidea (I. eranskina) egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da, behar bezala beteta.
3. Eskabidearekin batera (I. eranskina), dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:
  - a) Eskabidea sinatzen duen pertsonaren izen-abizenak eta NANA, bere izenean edo klubaren, kirol-elkartearen edo irabazi-asmorik gabeko kirol-erakundearen ordezkari gisa jarduten duelako.
  - b) Eskaera egiten duen klubaren, kirol-elkartearen edo kirol-erakundearen IFZren (identifikazio fiskaleko zenbakia) fotokopia. Honako hauek ere aurkeztu beharko dira: legez eratuta eta dagokion kirol-erakundearen erregistroan erregistratuta dagoela egiaztatzen duen agiria eta eskaera egiten duen pertsonaren ordezkari-tza-ahalordea.
  - c) Diruz lagundutako jardueren azalpen-memoria. Diruz lagundutako jardueraren deskribapena, 8. artikuluan baloratu beharreko alderdi guztiak barne.
  - d) Memoria ekonomikoa, eskatzen diren diruz laguntzeko moduko jardueren gastuen aurrekontu xehatua eta gastu horiek finantzatzeko erabiliko diren diru-sarrerak.
  - e) Banku-kontuaren titulartasun-ziurtagiria, diru-laguntzaren ordainketa izapidetzeko IBANa adierazita.
4. Erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina):
  - a. Egunean izatea Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak, itzulketagatiko betebeharrak eta zuzenbide publikoko gainerako zorrak.
  - b. Diru-laguntzak itzultzeagatiko betebeharrak ordainduta izatea.
  - c. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. apartatuetan onuradun izateko ezarritako debekuetan ez egotea.

Aiaraldeko Kuadrillak, egoki iritziz gero, dagozkion ziurtagiriak aurkezteko eskatu ahal izango du.

Aiaraldeko Kuadrillak eskuratu ezin dituztenean bakarrik eskatuko da administrazioaren esku dauden dokumentuak aurkeztea.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei ohartarazten zaie lotutako dokumentazioaren zati gisa emandako datuak urteko diru-laguntza emateko prozeduran soilik erabiliko direla. Diru-laguntza emateko deialdia honako oinarri hauek arautzen dute:

7. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura.

Eskabideak norgehiagoka bidez hautatuko dira, aurkeztutako eskabideak alderatuz. Horretarako, lehia-konkurrentziatzat hartuko da diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatzeko erabiltzen den prozedura, oinarri honetan adierazitako balorazio-irizpideen arabera lehentasuna ezartzeko eta irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenak esleitzeko. Era berean, puntuazioak lehentasun-ordena izango du, ordenaren arabera ezarritako balorazio-irizpideetan lortutako puntu-kopuruaren arabera. Berdinketak jarraitzen badu, erregistro-ordenaren arabera lehentasun-ordena izango dute.

8. artikulua. Balorazio- eta hautaketa-irizpideak

Jasotako eskaerak aztertuko dira, eta zehaztutako alderdi guztiak ebaluatuko dira, irizpide eta baremo hauen arabera:

1. Zein lehiaketa-eremutan parte hartzen duten (gehienez 25 puntu).
  - a) Udaleko/eskualdeko kirol-lehiaketak (5 puntu)
  - b) Probintziako kirol-lehiaketak (10 puntu).
  - c) Autonomia-erkidegoko kirol-lehiaketak (15 puntu).
  - d) Estatuko kirol-lehiaketak (20 puntu).
  - e) Europako kirol-lehiaketak (25 puntu).
2. Emakumeen taldearen edo taldeen lehia-maila (gehienez 20 puntu)
  - a) Katetoria autonomikoa: eskualdeko edo lurraldeko liga (5 puntu)
  - b) Katetoria federatu nazional ez-profesionala – oinarritzko edo tarteko maila: bigarren maila nazionala, estatuko txapelketak adinaren arabera (10 puntu)
  - c) Katetoria federatu nazional profesionala – goi maila: lehen maila nazionala, liga absolutuak, elitea edo federazioak aitortutako goi maila (15 puntu)
  - d) Nazioarteko katetoria ofizialak (20 puntu)
3. Antzintasuna emakumezkoen kirolaren garapenean (gehienez 10 puntu):
  - a) 3 urte baino gutxiago (4 puntu)
  - b) 3-5 urte baino gutxiago (8 puntu)
  - c) 5 urte baino gehiago (10 puntu)
4. Eskabidea egiteko unean amaitutako denboraldian lortutako kirol-lorpenak (gehienez 5 puntu)
  - a) Parte-hartzea (2 puntu)
  - b) Parte-hartzaileen erdia baino gehiago izatea gutxienez (3,5 puntu).
  - c) Podiuma: 1., 2. edo 3. postua (5 puntu)

9. artikulua. Azterlana, ebazpena eta organo eskuduna

Oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak eta helburua betetzen dituzten eskabide guztiak batera aztertuko dira, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartuko ditu.

Aurkeztutako dokumentazioan irregulartasunen bat edo akatsen bat detektatu bada, hamar egun balioduneko epea izango da zuzentzeko, errekerimendua jasotzen denetik aurrera. Era berean, egoki iritzi gero, hamar egun balioduneko epea izango da prozeduran zehar Aiaraldeko Kuadrillak eskatutako dokumentazio eta txosten osagarriak aurkezteko. Bi kasuetan, epe hori agortuta, eskaera zuzendu ez bada edo eskatutako dokumentazioa entregatu ez bada, artxibatu egingo da eta administrazio-baliorik gabe geratuko da.

Aurrekoa egin ondoren, eta deialdi honetako 8. oinarriko irizpideak kontuan hartuta, aurkeztutako eskaerei buruzko dokumentu bat egingo da, honako hauek adieraziz:

- Horiek onartzea edo ukatzea.
- Diru-laguntza ematea proposatzen zaien eskatzaileen zerrenda.
- Jardueraren edo programaren diru-laguntzaren zenbateko espezifikoa.
- Ebaluazioa eta ebaluazioa egiteko erabilitako irizpideak zehaztea.

Aurkeztutako eskatzaileen guztizko sortzapenak horretarako ezarritako aurrekontu-partidan ezarritako zenbatekoa gainditzen badu, hobekien baloratutakoei emango zaie diru-laguntza, deialdi honen 2. oinarrian ezarritako aurrekontua agortu arte.

Gizarte Gaietako, Berdintasuneko eta Kulturako Batzordea izango da diru-laguntza emateko organo eskuduna, eta Lehendakartzaren dekretu bidez onartuko da.

#### 10. artikulua. Jakinarazpena eta ordaintzeko modua

Lehendakartzaren dekretu bidez behin betiko ebazpena onartu ondoren, hautagai-zerrenda guztiei jakinaraziko zaie. Ebazpena arrazoitu egingo da, eta, nolahi ere, hartzen den ebazpenaren oinarriak egiaztatu beharko dira. Diru-laguntza eman zaien eskatzaileen zerrenda eta gainerako eskabideen ezespina jaso beharko ditu.

Erabakia diru-laguntza ematearen aldekoa bada, honako hauek jasoko dira ebazpenean: laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, emateko baldintzak, diru-laguntza onartzeko eta diru-laguntza justifikatzeko epea (gehienez ere hilabeteko epea, jarduera amaitzen den unetik zenbatzen hasita), eta, nolahi ere, ezingo da gainditu uneko urteko abenduaren 15a.

Emandako diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:

- Ehuneko laurogeiko bat (ehuneko 80), onuradunak diru-laguntza onartu duela jakinarazten duen unean.
- Dirulaguntzaren gainerakoa (ehuneko 20), 16. oinarrian aipatutako justifikazioa aurkeztu ondoren.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa da. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatuko da epea.

Diru-laguntza emateko ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.

Gehieneko epea amaitzen bada eta ez bada ebazpenik jakinarazi administrazio-isiltasunaren bidez, interesdunek ulertu behar dute beren eskaera ezetsi dela.

Oinarri hauetan ezarritako irizpideak aplikatuz, kuadrillak eskubidea izango du aurkeztutako proiektu guztiei diru-laguntzak ez emateko, bai zenbateko osoan, bai zati batean, edo, hala badagokio, deialdia bete gabe uzteko.

Deialdi hau eta haren ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

#### 11. artikulua. Diru-laguntza kontura ordaintzeko bermea

Kontuan hartuta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 42. artikulua bermea eratzetik salbuesteko kasuak ezartzen dituena, ez zaio bermea eskatuko oinarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradunari.

#### 12. artikulua. Diru-laguntzaren muga

Deialdi honen bidez ematen diren diru-laguntza guztien zenbatekoa, guztira, ezingo da izan 1.000 eurotik gorakoa erakunde edo pertsona onuradun bakoitzeko.

Onartutako diru-laguntza balorazio-organoak berrikusi ahal izango du, gastuaren finantzaketa beste erakunde batzuen laguntzen ekarpen osagarrien bidez jakin ondoren, bai eta, hala badagokio, beste diru-sarrera batzuen bidez ere, behin betiko zenbatekoa gastuen eta sarreraren azken likidazioaren emaitza defizitarioa izan dadin, zortzigarren oinarrian ezarritako gehieneko ehunekoak urratu gabe.

#### 13. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Laguntza horiek ematea bateragarria izango da beste erakunde edo entitate batzuek emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntza motarekin, Aiaraldeko Kuadrillak eman ditzakeenak izan ezik, baldin eta aurrekontuan diru-laguntza izendun gisa hala zehazten bada.

Beste administrazio edo erakunde batek jarduera bererako beste diru-laguntza bat eman duela jakiten denean, berehala jakinaraziko zaio Aiaraldeko Kuadrillari.

Helburu bererako beste finantzaketa-iturririk badagoen ala ez adierazten duen zinpeko aitorpenean, finantzaketaren zenbatekoa adierazi beharko da, bai eta, hala badagokio, ebazteke dauden laguntza-eskaeren zenbatekoa ere. Lortutako diru-laguntzen baturaren

zenbateko osoa diruz lagun daitezkeen gastuen aurrekontua baino handiagoa bada, kuadrillak eman beharreko laguntzari soberakinari dagokion zenbatekoa kenduko zaio.

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezin izango da diruz lagun daitezkeen gastuen kostua baino handiagoa izan.

#### 14. artikulua. Kontrol-bermeak

Diru-laguntza ematen duen organoak egokitzat jotzen dituen kontrol administratiboak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak diren eta laguntza jasotzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko.

Erakunde edo pertsona onuradunak ikuskapen horretan laguntzeko betebeharra izango du, eskatutako datuak emanez eta, hala badagokio, jarduerak egiteko erabiltzen diren bulegoetara sartzea erraztuz.

#### 15. artikulua. Ebazpenaren aldaketa

Diru-laguntza eman ondoren, erakunde edo pertsona onuradunak Aiaraldeko Kuadrillari jakinarazi beharko dio diruz lagundu daitezkeen gastuetan gertatzen den edozein aldaketa, bai aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak erakunde edo pertsona onuradunaren borondatearen mende egon ez direlako, bai diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, elementuak edo inguruabarrak aldatu egin direlako.

Kuadrillaren diru-laguntzaren erakunde edo pertsona onuradunak beste administrazio edo erakunde batzuetatik beste diru-laguntza batzuk jasotzen baditu, berehala jakinarazi beharko zaio diru-laguntza eman zaiola, eta diru-laguntza horiek zenbatuko dira diruz lagundu daitezkeen gastuen guztizko kostua ez gainditzeko, erakunde edo pertsona onuradunak beste administrazio edo erakunde batzuek emandako jardueri uko egitea erabaki ala ez.

Aldaketak jakinarazi ondoren, eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoan eraginik izango balute, Tokiko Gobernu Batzarrak, hilabeteko epean, nahitaez idatziz jakinaraziko dio erakunde edo pertsona onuradunari egindako berrikuspenaren emaitza, ebazpen berrian diru-laguntzaren zenbatekoa eta emateko baldintza berriak adierazita. Epe hori igarotakoan Aiaraldeko Kuadrillak berrikuspen-eskaerari erantzuten ez badio, ez duela onartu ulertuko da.

#### 16. artikulua. Diru-laguntzaren justifikazioa

Justifikazio-kontua ematea onuradunaren nahitaezko egintza da.

Diru-laguntza justifikatzeko, erakunde edo pertsona onuradunak diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko du, eta ez bakarrik kuadrillak emandako zenbatekoa, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedatzen duen bezala, eta honako dokumentazio honekin batera aurkeztu beharko da:

1. Diruz lagundutako jardueren memoria, bai eta emakumezkoen taldeak edo kirolariak parte hartu duen lehiaketa ofizialen deskribapena ere, lortu duen lanpostua zehaztuta.
2. Sarreraren eta gastuen likidazio xehatua, eta, hala badagokio, koadrilaren diru-laguntzaren mende dagoen zatia zehaztuko da:
  - Diru-sarrerak: izandako diru-sarrera guztien zerrenda xehatua jaso beharko dute, eta koadrilak diruz lagundutako jarduerarako beste diru-laguntza edo diru-sarrera batzuk lortu izana erlazionatuz gero, laguntza edo diru-sarrera horiek emateko edo ukatzeko ebazpenaren fotokopia aurkeztu beharko dute.
  - Gastuak: izandako gastu guztiak zerrendatu beharko dira, dagozkien fakturekin batera, ordainagiriekin lotuta. Gastua partzialki beste baliabide edo diru-laguntza baten bidez finantzatu bada, gastua justifikatzen duten fakturak edo froga-balio baliokidea duten eta merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak. Fakturak zenbakituta eta aurkeztutako fakturen zerrendari erantsita aurkeztu beharko dira.
  - Aurkeztutako fakturen ordainagiriak, dagozkien fakturei lotuak edo lotuak.
3. Jarduera edo programa gehiegi finantzatu ez izanaren zinpeko aitortpena (III. eranskina).
4. Oinarri hauetako 4. artikuluan zehaztutako betebeharrak bete direla egiaztatzen duen adierazpena.
5. Aurkeztutako fakturen zenbateko osoak diruz lagun daitekeen aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 100 estaltzen ez badu, erakunde edo pertsona onuradunak kuadrillari jakinarazi beharko dio, Koadrilaren diruzaintzan dagoeneko ordaindutakoa itzultzeko edo, hala badagokio, Koadrilak emandako diru-laguntza murrizteko.

Justifikazio dokumentazioa 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo behar bezala justifikatzen ez bada, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandutze-interesarekin batera, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikulua 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

#### 17. artikulua. Diru-laguntza galtzea

Diru-laguntzen pertsona edo erakunde onuradunek beherago zehazten diren baldintzetako edozein betetzen ez badute, eta ez-betetzeen larritasunaren arabera, jasotako zenbateko guztiak edo batzuk itzuli beharra, gehi berandutze-interesak, diru-

laguntza ordaintzen den unetik, Aiaraldeko Kuadrillaren kontura transferentzia eginez eta kuadrillaren egoitzan sarreraren egiaztagiria aurkeztuz.

Hauek dira ildo horretan jardungo duten kasuak:

— Eskabidean edo aurkeztutako dokumentazioan emandako datuak faltsutzea.

— Diru-laguntza ematea eragin zuen jardueraren helburua osorik edo zati batean ez betetzea.

— Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo behar bezala ez justifikatzea.

— Diru-laguntzaren zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, erakunde onuradunak garatu beharreko diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzea.

— Aiaraldeko Kuadrillari berehala ez jakinaraztea beste diru-laguntza publiko edo pribatu batzuk eman direla, nahiz eta kuadrillak dagokion likidazioa onartu.

— Eta, oro har, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege hori garatzeko legerian ezarritako edozein ez-betetze.

18. artikulua. Diru-laguntzen itzulketa partziala eta ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak

Balioespen-organoak diru-laguntzen zati bat itzultzea proposatuko du, jardueraren gastuen behin betiko likidazioa jardueraren gastuen hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan denean eta onuradunak aurretik berrikustea eskatu ez duenean. Itzulketa kalkulatzeko, balorazio-organoak proportzionaltasun-irizpidea aplikatuko dio aurkeztutako likidazioari.

19. artikulua. Zehapenak

Balorazio-organoak, dagokion espedientea ireki ondoren, ez-betetzeen larritasuna baloratu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari proposatuko dizkio azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluko II. kapituluan jasotako diruzko zehapenak eta diruzkoak ez direnak, diru-laguntzak itzultzeko betebeharrarekin zerikusirik ez dutenak. Nolanahi ere, zehapena ezartzearekin batera diru-laguntza osorik itzuli beharko da beti.

Oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen ez badira, baina Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra arautzen ez baditu, ehuneko 5 murriztuko da emandako diru-laguntza bete ez den baldintza bakoitzeko.

Elkarte onuradunen administratzaileak edo legezko ordezkariak izango dira jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzultzeko betebeharraren erantzule subsidiarioak.

20. artikulua. Garapena, interpretazioa eta hedapena

Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarrak deialdi hau garatzeko egokitzat jotzen dituen ebazpenak emango ditu.

Oinarri hauek interpretatzeko edozein zalantza Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko du.

**I. ERANSKINA: DIRULAGUNTZA ESKAERA / ANEXO I: SOLICITUD DE SUBVENCIÓN**

**ESKAERA / SOLICITUD**

<b>IZENA / NOMBRE</b>	<b>1. ABIZENA / 1º APELLIDO</b>	<b>2. ABIZENA / 2º APELLIDO</b>
<b>NAN / DNI</b>	<b>Telefonoa / Teléfono</b>	<b>Posta elektronikoa / Correo electrónico</b>
<b>Helbidea / Domicilio</b>	<b>Herria / Localidad</b>	<b>Posta kodea / Código postal</b>
<b>Nire izenean edo honako hau ordekatuz / Actuando en nombre propio o en representación de</b>		<b>IFK / CIF</b>
<b>Eraketa-data / Fecha de constitución</b>	<b>Bankuko datuak (IBAN) / Datos bancarios (IBAN)</b>	
<b>Kirol erregistroa / Registro deportivo</b>	<b>Inskripzio data dagokion kirol erregistroan / Fecha de inscripción del Registro deportivo correspondiente</b>	

Eskabide honetako datu guztiak egiazkoak direla adierazten dut. Era berean, deialdiaren oinarri guztiak onartzen ditut, eta baimena ematen diot Aiaraldeko Kuadrillari eskaera honen edozein datu egiaztatzeko, dagozkion erregistroak edo Elkartearen dokumentazioa kontsultatuz.

Arespalditzan, 2026ko .....ren .....(e)an.

Sinatuta.: (Erakundearen legezko ordezkariaren sinadura)

Declaro la veracidad de todos los datos de esta solicitud. Así mismo acepto en su totalidad las bases de la convocatoria y autorizo a la Cuadrilla de Aiaraldea a verificar cualquiera de los datos de esta solicitud mediante la consulta de los registros o documentación de la Asociación que correspondan.

Respaldiza, a ..... de .....de 2026.Fdo.: (Firma del Representante legal de la entidad)

**II. ERANSKINA / ANEXO II****ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

\_\_\_\_\_ Jaun/Andreak,  
\_\_\_\_\_ NAN zenbakidunak, \_\_\_\_\_  
entitatearen legezko ordezkari gisa

**ADIERAZTEN DU**

- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela, bai eta itzulketak eta zuzenbide publikoko gainerako zorrak ere.
- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta dituela.
- Onuradun izateko debekurik ez duela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. ataletan adierazitako araberako. Kuadrillak, egoki baderitza, dagozkion ziurtagiriak aurkezteko eskatu ahal izango du.

**DOKUMENTUAK EZ AURKEZTEKO ESKUBIDEA**

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritako araberako, eta zuk berariaz aurka egiten ez baduzu, jakinarazten dizugu Aiarako Kuadrillak, bere eskumenak baliatuz, bitarteko elektronikoen bidez eskatuko dituela jarraian adierazten diren dokumentuak. Berariaz uko egiten badiotzu Aiarako Kuadrillak aipatutako dokumenturen bat eskuratzeari, jarraian adierazitako laukitxoak markatu beharko duzu, eta eskabide honekin batera aurkeztu beharko dituzu dokumentuak:

**Oposizioa:**

Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Arespalditzan, 2026ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an

Sinatuta.: (Erakundearen legezko ordezkariaren sinadura)

**DECLARACIÓN RESPONSABLE**

Dº/Dª \_\_\_\_\_, con DNI nº \_\_\_\_\_,  
\_\_\_\_\_, en calidad de Representante legal de la entidad  
\_\_\_\_\_

**DECLARA**

— Hallarse al corriente de pago de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral y con la Seguridad Social, así como por reintegro y demás deudas de derecho público.

— Hallarse al corriente de pago de obligaciones, por reintegro de subvenciones.

— No estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario o beneficiaria, señaladas en los apartados 2 y 3 del art. 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. La cuadrilla, en caso de considerarlo oportuno, podrá requerir la presentación de los certificados correspondientes.

**DERECHO A NO APORTAR DOCUMENTOS**

En virtud de lo establecido en el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y salvo que usted se oponga expresamente a ello, se le informa de que la Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrilla en el ejercicio de sus competencias recabará por medios electrónicos los documentos que se indican a continuación. En el caso de que se oponga de forma expresa a que la Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrilla recabe alguno de los citados documentos, deberá indicarlo marcado la casilla habilitada a continuación y aportando los documentos junto con la presente solicitud:

**Oposición:**

Certificado acreditativo de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias.

Certificado acreditativo de encontrarse al corriente en sus obligaciones con la Seguridad Social.

En Respaldiza, a .....de .....de 2026.

Fdo.: (Firma del Representante legal de la entidad)

**III. ERANSKINA / ANEXO III****ZINPEKO AITORPENA, JARDUERAK EDO PROGRAMAK  
GAINFINANTZAKETARIK EZ DUELA ADIERAZTEN DUENA**

\_\_\_\_\_ Jaun/Andreak,  
\_\_\_\_\_ NAN zenbakidunak,  
\_\_\_\_\_ entitatearen legezko ordezkari gisa

**ADIERAZTEN DU**

Ez dagoela gainfinantzaketarik dirulaguntza honen xede den jarduera edo programan, eta jardueraren gainfinantzaketa gertatuz gero, onuradunak dagozkion zenbatekoak itzultzeko konpromisoa hartzen duela. Eta horrela jasota gera dadin, eskatutako agiriak aurkezteko, zinpeko adierazpen hau sinatzen dut.

Arespalditzan, 2026ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an

Sinatuta.: (Erakundearen legezko ordezkariaren sinadura)

**DECLARACIÓN JURADA DE NO EXISTENCIA DE SOBREFINANCIACIÓN DE LA  
ACTIVIDAD O PROGRAMA**

Dº/Dª \_\_\_\_\_, con DNI número  
\_\_\_\_\_, en calidad de representante legal de la  
entidad \_\_\_\_\_

**DECLARA**

Que no existe sobrefinanciación de la actividad o programa objeto de la presente subvención y que en caso de que existiese sobrefinanciación de la actividad, el beneficiario se compromete a reintegrar las cantidades correspondientes. Y para que así conste, a los efectos documentales requeridos, suscribo la presente declaración jurada.

En Respaldiza a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ 2026

Fdo.: (Firma del Representante legal de la entidad)